

Etaparen testuingurua: Pertsonengan aldaketa eragin eta buruak irekiarazi nahi dituen hezkuntzak prozesuak, datuak eta gertaerak (horiek oso garrantzitsuak badira ere) prozesatzeko gaitasuna baino gehiago izan behar du! Hezkuntzak ikuspegi-aldaketa bat ere eskatzen du, topaketaren bidez; izan ere, hari esker, emozionalki hunki gaitzke eta topaketaren esperientzia isla dezakegu.

Helburuak

Etaparen bukaeran, honako hau lortu beharko lukete ikasleek:

- ✓ babesari/migrazioari buruzko informazioa eta ezagutza faktikoak barneratzeaz gain, nolabait ere errefuxiatuen egoera, esperientziak eta nahiak ulertzeko gai izatea (emozionalki ere bai)
- ✓ ikuspegi-aldaketa jasatea eta ezagutza sakonak barneratzea

Edukia

- ✓ Errefuxiatuen esperientziekin eta ikuspegiekin lan egitea

Metodoak

Errefuxiatuekin topaketa bat egitea (egiazko topaketa batean edo lekukotasunen bidez)

2. etaparen trantsizioa

Oroitarazi ikasleei azken aldian babesari eta migrazioari buruzko informazioa, datuak eta gertaerak aztertzen aritu zirela. Oraingo honetan, gertaeren eta zifren atzean dauden pertsonak berraurkituko dituzte. Hala, informazioa ezagutza sakon bihurtuko da.

Pausoa #1

Egiazko topaketa

Bereziki gomendagarria da egiazko topaketa bat egitea zure herrialdean bizi den errefuxiatu batekin, bere jaioterriko, babes-garaiko eta bizileku duen herrialdeko esperientziak kontatu ditzan. Horrelako solaskide bat aurkitzeko eta prestatzeko, oro har, CHANGEko zure solaskidearen laguntza beharko duzu. ALBOANek, erakunde aliatuekin batera, kontaktuak izaten ditu solaskide izan daitezkeen errefuxiatuekin, eta esperientzia eta gaitasuna du gonbidatutako pertsona topaketarako prestatzeko.

Bisitaren aurrelanketa

CHANGEko zure solaskideak eta eskolak pertsona gonbidatua izan daitekeena hautatu eta gero, mesedez, honako hauek kontuan hartu:

- ✓ Pertsonak eroso sentitu behar du bere esperientziei (estresagarriak eta mingarriak barne), galerei eta minei, itxaropenei eta desirei buruz mintzatzen den bitartean, gehiago sufritu gabe. Pertsona horrek ere gai izan behar du kudeatzeko ikasleek batzuetan sentikortasun eta ardurarik gabe joka dezaketela galderak eta iruzkinak egitean.
- ✓ Pertsonak nahikoa denbora eraman behar du zure herrialdean bizitzen, zenbait esperientziari buruz (negatiboak nahiz positiboak) hitz egin ahal izateko: onartua/baztertua sentitu den, parte hartzen uzten dioten ala alde batera uzten duten, etab. Argi dago herrialdera ailegatu berria den pertsona baten esperientziak ere oso hezigarriak izan daitezkeela. Baina ez da hain gai izango zure herrialdean bizitzeagatik sentitzen duenari buruz asko kontatzeko.
- ✓ Hoberena da ikasleei beren hizkuntzan hitz egin ahal izatea. Bestela, hark esandakoa itzuli egin behar da, eta gerta daiteke aurkezpenean ñabardura sotilenak ez transmititzea, eta asko luza daiteke.

Gonbidatuak aldeztu aurretik jakin behar du zein izango diren topaketaren gaiak eta nola gauzatuko den elkarrizketa. Segurtasun-sentsazioa emateko (parte hartzen duten pertsona guztiei), oso gomendagarria da hizketaldian gonbidatuari konfiantza ematen dion laguntzaile edo moderatzaile bat egotea (normalean, CHANGEko zure solaskidea edo erakunde aliatuekin lan egiten duen beste pertsona bat). Topaketaren aurretik eskatu gonbidatuari (CHANGEko zure

solaskidearen bidez) honako galderetara orienta daitezkeen zenbait estimulu prestatzeko. Argi dago pertsonak nahi duena esateko askatasuna duela.

- ✓ Zergatik utzi nuen nire jaioterria?
- ✓ Nor eta zer utzi nuen, eta noren falta sumatzen dut gehien?
- ✓ Zer sentitu nuen babes-egoeran egon nintzen bitartean?
- ✓ Zerk bultzatu ninduen hain bide gogorra hartzera?
- ✓ Zer nahi eta ideia nituen bizileku berriari buruz?
- ✓ Nola hartu ninduten herrialde berrian: zertaz oroitzen nintzen ongi, zerk lagundu zidan, zer izan zen zaila niretzat? Badira pertsonak niretzat gaur egun oso garrantzitsu bihurtu direnak?
- ✓ Bide honetan, zerk gauzak aldarazi eta hunkitu naute?
- ✓ Nolako elkarbizitza dut herrialde berriko pertsonekin gaur egun?
- ✓ Gure elkarbizitzarako, zer da baliotsua eta garrantzitsua?
- ✓ Nolako ekarpena egin dezaket eta egin nahi nuke orain bizileku dudak gizartean?
- ✓ Zer itxaropen eta amets ditut etorkizunerako?
- ✓ Ikasleei zerbait esan edo galdetu nahi nieke?
- ✓ Zein da zure bizitzan gertatu den aldaketarik handiena?

Ikasleak prestatzea

Hobe da ikasleak aurreko etaparen bukaeran prestatzea (ikus: 2. etapatik 3. etaparako trantsizioa): Azaldu gonbidatutako pertsonak esperientzia oso pertsonalei buruz hitz egin behar diela eta batzuk oso gogorak eta mingarriak izan direla. Esan ikasleei galderak egin ditzaketela, eta, hala, beren interesa erakutsi, baina, beti, errespetuz. Kontua litzateke imajinatzea nola sentituko liratekeen beren esperientzia, sentimendu, desio eta itxaropen pertsonalez hitz egin behar balute ezagutzen ez duten jendearen aurrean.

Sarrera eta elkarrizketa

Gonbidatua CHANGEko zure solaskidearekin batera ailegatzen denean, agurtu itzazu laburki. CHANGEko solaskideak gonbidatua aurkeztuko du, hark esan behar duena aurreratu gabe. Eskatu gonbidatuari ikasleei bere historia konta diezaiela, eta eskatu ikasleei entzun diezaiotela etenaldirik egin gabe. Aurkezpenaren ondoren, ikasleek galderak egin diezazkiokete gonbidatuari. Hori bukatutakoan, gonbidatuak ikasleei



zerbait galdetu badie edo bereziki harrigarria den zerbait esan, ikasleek horri buruzko iruzkinak egin ditzakete.

Hausnartzea

Topaketa bukatzerakoan, ikasleek, laburki, esan dezakete zerk harritu edo hunkitu dituen bereziki. Zer nahi dute haiek beren bizitzarako, beste pertsona batzuekin batera bizi behar dutenean? Elkarrizketatuak izan behar du azken hitza: Zer hartu du gogoan hizketalditik?

Bertatik bertara ezin bada topaketa egin, 2.1 eta 2.2 pausoak erabil ditzakezu 1. pausoaren alternatiba gisara. 2.1 eta 2.2 pausoak osagarri gisa ere erabil ditzakezu, astia izanez gero.

Pausoa #2/1

Errefuxiatuak poeta bihurtzen direnean

Interneten, errefuxiatuen lekukotasun asko aurkituko dituzu, batez ere poemak, eta horiek bereziki egokiak dira emozioez eta enpatiaz hitz egiteko.

Hona hemen bi adibide:

- ✓ Hogar / Home – Warsan Shire



- ✓ No me llames refugiada / Don't call me refugee- Lamiya Safarov:
<http://www.poesiademujeres.com/2013/08/no-me-llames-refugiada.html>

Ikusarazi ikasleei hautatutako poema/bideoa eta eskatu ondoren hausnarketa egiteko (galderak → ikasleentzako lan-orriak):

- ✓ Zer esperientzia eta nahi azaltzen dira poeman?
- ✓ Zerk erakarri edo hunkitu nau bereziki?
- ✓ Poetarekin hitz egin ahal izango banu: zer galdetuko nioke, zeri buruz jakin nahi nuke gehiago?
- ✓ Poeta horiek gurekin biziko balira, nolako ekarpena egin ahal izango ligukete, nola aberastuko gintuzkete?
- ✓ Nire egungo etxea egun batetik bestera utzi behar banu (edo utzi egin behar izan badut), zeren falta sumatuko nuke gehien? Zer espero nuke nire etxe berriaz? Niretzat, zer litzake garrantzitsua ongi bizi ahal izateko?

Hausnarketa pertsonalaren ondoren, ikasleek galdera horiei buruzko ideiak parteka ditzakete, talde txikitan edo talde osoan.

Pausoa #2/2

Errefuxiatuek beren istorioa azaltzen digute

Poemak lantzea aproposa izango ez dela pentsatzen baduzu beste aukera bat eskaintzen dizugu. Beren istorioa azaltzen duten errefuxiatuen bideoak ikustea ere posible izango litzateke. Hiba edo Osamaren bideoak ez badituzue ikusi, adibidez, hemen erabili ditzakezu.



Bideoak ikusi ondoren, eskatu ikasleei hausnarketa egiteko (galderak→[ikasleentzako lan-orriak](#)):

- ✓ Zer sentimendu adierazten d(it)u Hibak/Osamak?
- ✓ Zer sentitu dut nik bideoa ikusterakoan?
- ✓ Zer ekarpen baikorra ekar dezake Hiba/Osama bezalako errefuxiatu batek gure gizartera? Zer beharko luke ekarpen hori aurrera eraman ahal izateko?

Aukera hautatzen baduzu, CHANGEko solaskidearen laguntzarekin egin dezakezu pauso hau.

Hark adibideak erabil ditzake azaltzeko lekukotasun horien zer alde agertzen diren zure herrialdeko errefuxiatuengan.



Hausnartzea

Azaldu etapa honetako hausnarketa-lana (Hausnarketa-lana → **ikasleentzako**

lan-orriak). Hurrengo etaparako, mesedez:



Egin zuretzat itxaropena adierazi edo sinbolizatzen duen objektu baten argazkia !



Idatzi hiru nahi zehatz bizileku duzun herrialdeko gizarterako!

Laburpena eta trantsizioa

Eskatu ikasleei esaldi gutxi batzuetan azaltzeko zer ikasi duten.

Zenbait lagunek beren ekarpena adierazi eta gero, esandakoa zure hitzetan laburbil dezakezu (ikusi etapa honen helburuak).

Orduan azal dezakezu nola izango den hurrengo etapa: *"Hurrengo aldian ikusiko dugu zerk gidatu behar gaituen errefuxiatuentzako justizia nahi badugu eta elkarrekin hobeki bizi nahi badugu."*

GOAZEN 4. ETAPARA